



## GORPUTZ HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK

Guraso eta familia agurgarriak:

Aurkitzen garen egoera berezi hau dela eta, Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai-ko Gorputz Hezkuntzako irakasleok, guraso eta ikasleen eskuetan BALIABIDEAK jartzeko beharrean gaude. Horretarako, berritzegune nagusiak gure eskuetan jarritako materiala partekatuko dugu.

Material hau bi helbide nagusitan banatuta dago:

1-<https://sites.google.com/berritzegunenagusia.eus/etxeanikasten/heziketa-fisikoa-educaci%C3%B3n-f%C3%ADsica>

Helbide honetan, bi zatitan banatzen da materiala. JARDUERAK en barruan, PDF artxibo batean hainbat jarduera mota daude; luzaketak eta yoga ariketak, dantza ezberdinak (just dance, euskal dantzak, bestelakoak...), kirolak (puxika jolasak, abilezia zirkuituak, jolasak (puntería jolasak, kartak...) eta bestelako jarduerak ere bai. Lehen Hezkuntzako ikasleentzat aproposak eta etxean egin ahal izateko modukoak iruditu zaizkigu. Hauetaz gain, beste hainbat jarduera ikusi ahal izango dituzue.

Bigarren atalak BALIABIDEAK izena du. Atal hau ikusentzunekoei lotua dago gehiago. Bertan, jolasak eta eskulanak, filmak, marrazki bizidunak, ipuinak, abestiak...aurkitu ahal izango dituzuelarik.

Bigarren helbidea honako hau da:

2-<https://sites.google.com/view/ghetxean/>

Bertan, astelehenetik igandera egunero zerbait egin ahal izateko proposamenak aurki ditzazkezue; astelehenean dantzak, asteartean material birziklatuekin jolasak sortu, asteazkenean gorputz adierazpena eta mimika jolasak, ostegunean puxika jolasak eta erronka ezberdinak, ostiralean zirkua, larunbatean bilaketa jolasak, eta igandean erronkak.

Jarduera asko daude proposatuak, egia da etxe guztietako egoera ez dela berdina izango eta espazioak ere asko mugatzen gaituela. Dena den, ondo datozkizuenak eta gustukoak egiten saiatu, ziur beste ideien batzuk etorriko zaizkizuela burura. Animo eta denon artean aurre egingo diogu egoera zail honi.

Laster ikusiko garelakoan,

Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai-ko Gorputz Hezkuntzako irakasleak.



GORPUTZ HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK